



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

KREAZIOA

B SAIOA
GURASOENTZAT PARROKIAN

Delegación de Anuncio y Catequesis
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza



1. Helburua

- Jainkoak maitasunez sortzen gaituela, guztion Aita dela eta zorioneko izateko behar dugun guztiarekin bizitza ematen digula jakin.

2. Helburu bereziak

- Mundua Jainkoaren kreazioa dela antzeman, maite gaituelako sortzen duela mundua eta sortzen gaituela gu geu.
- Kreazioaren opariagatik liluratuta eta esker oneko sentitu.
- Gutariko bakoitza Jainkoaren kreazio garelako konturatu eta horren aurrean esker ona adierazi.
- Jainkoak gizon eta emakume guztiok "bere antz eta irudiko", desberdin, baina duintasunean
- berdin, sortzen gaituela antzeman.
- Kreazioaren eta pertsona guztien zainketan Jainkoaren laguntzaile izateko erantzukizuna dugula antzeman.

3. Saioak

- B saioa, gurasoentzat parrokan.

4. Aurkituko duzuna

- Motibazioa: ideia nagusiak.
- Jainkoaren Hitza, txatala.
- Abestia / ipuina/ bideoa.
- Saioaren garapeneko jarduera eta azalpen zehatza.
- Bilketa eta laburpena egiteko proposamena.
- Ezinbesteko lagungarriak.

B SAIOA GURASOENTZAT PARROKIAN



Motibazioa

- Jainkoaren kreatioa bere etxea maite duen eta etxea nahiz senideak zaintzen dituen familia egiten gaituen herentzia bezala hartu. (Laudato Si, 92)



Azpimarrak

- Jainkoak bizia ematen ditu eta bere seme eta alaba egiten gaitu.
- Kreatioa, gure bizilekua da; Jainkoak leku bat ematen digu gure familiarekin haz gaitezen..., eta leku hori opari eder bezala zain dezagula eskatzen digu.
- Kreatioak Jainkoaren maitasunaren jardunbidea agertzera ematen digu.



Idea nagusiak

- Saioaren ardatz den kontaketa, kreatioarena da (Has 1, 1-31; 2, 1-2): "Tu primera Biblia", Edebe, 1 zenb., 10. or eta hurrengoak.
- Jainkoak bizia ematen digu eta zorioneko izan gaitzela nahi du.
- Denok dugu garrantzia bera Jainkoaren begietara, bere antz eta irudiko sortu gaitu.
- Jainkoak sortu duena geure egiteko eta zaintzeko askatasun eta erantzukizuna.



Ezinbesteko lagungarriak

- Biblia edo "Tu Primera Biblia" (Edebe, 1 zenb, 10. or eta hurrengoak).
- Pegatinak
- Lazoak
- Irudiak
- "Hasta la locura", abestia
- Kandela edo
- Pazko-zuzia

Garrantzitsua da denbora hartzea saioaren jardunbidea ulertzeko eta, aldez aurretik, gauza guztiak prestatzeko.



Saiorako gida

Laguntzailearentzat...

Saioa, lau unetan banatuko dugu:

- o 1. unea: agurra eta aurkezpena (10 minutu). 1. urratsak
- o 2. unea: gaiaren azalpena (10 minutu). 2., 3., 4. urratsak.
- o 3. unea: jarduera. Bideo-abestia (25 minutu). 5. urratsa.
- o 4. unea: adierazpena eta laburpena (15 minutu). 6. urratsa.



Lehen unea. Agurra eta aurkezpena



1. urratsa: Laguntzaileak, partaideak agurtuko ditu eta, ondoren, saioaren helburua azalduko du: kontaketa xedea ezagutu eta eguneratu.

Bigarren unea. Gaiaren azalpena



2. urratsa. Laguntzaileak Has 1, 1-31; 2, 1-2 txatala irakurriko du ozen, ahal izanez gero, Bibliatik.



3. urratsa. I. eranskinean jasotzen diren irudiez baliatuz, kreazioaren kontaktaren inguruko elkarrizketari sarrera egin.

- Laguntzaileak irudietan arreta jartzeko esango die, bakoitzean zer ikusten duen adieraziz. Parte hartzea sustatzeko, irudi bakoitzeko post-it bana eman eta bakoitzak idatz dezala bururatzen zaiona. Argazkiak lurrean egon daitezke edo horman proiektu ditzakegu, galeria erara, partaideek hara eta hona dabiltzan bitartean ikus dezaten.
- Katekista eta eragileentzako eranskinaz baliatuko gara ideia nagusiak azaltzeko.



4. urratsa. Jardunbideari amaiera emateko, atera diren ideietatik batzuk nabarmentzeko eskatuko zaie.

Hirugarren unea. "Bizitzako lokarriak" jarduera



5. urratsa. "Bizitzako lokarriak".

Saioa gidatzen duen pertsonak lazo bana emango die (lazoak luzeak izango dira eta ez dira neurri berekoak izango; kolore askotakoak izan daitezala) eta errotuladore bana, hauek ere kolore desberdinetakoak. Hitz, jarrera, ideia edo emozio bat idatz dezatela, galdera bakoitzari erantzuteko.

Amatasun eta aitatasunaren esperientzian kokatu eta Kreazioaren kontaktan sakonduko dugu. Biziazen sortzaile den, sortutako guztian bere burua agertzera ematen duen Jainkoarengana hurbilduko gara. Sortutakoaren handitasunaz ondoen jabetzen laguntzen digun bizitzako esperientzia nagusia, gure seme eta alaben etorrera da. Gure familiak zaintzen ditugun bezala, Jainkoak bere kreazioa zaintzeko agintzen digu.



Isilunea egingo dugu eta familia sortzen hastea pentsatu zuten unea gogoratzeko esango diegu partaideei. Bi aukera ditugu une honetarako: galderak astiro irakurriko dugu, pentsatzeko eta gogoeta egiteko; orri bana ere eman diezaiekegu, galderaz irakurtzeaz batera, idatziz erantzun dezaten. Orri hori etxera eraman dezakete.

- Zertarako sortu nahi izan zenuten familia? Zein zen asmoa?
- Nola prestatu zineten familia izateko?
- Nola sentitu zineten, asmoa egia bihurtzen ari zela ikustean?
- Zer egiten duzue familiari eusteko?
- Zerk iraunarazten zaituzte familia bezala elkartuta?
- Zerk laguntzen dizue familia bezala hazten?
- Begiratu zure familiari leku santu bezala...

Une honetan, askatasuna emango diegu, antzeman dugun zerbait batera jartzeko: zer esan didate galderek, nola sentitu naiz, zein sentipen nagusitu da...

Azkenik, Jainkoaren kreazioaren ideia nagusiak azpimarratuko ditugu (ikusi katekista, eragile eta gurasoentzako eranskina):

- Jainkoak bere kreazioa ematen digu zain dezagun.
- Jainkoak, sortutakoa ikustean, "dena ona zela ikusi zuen".
- Jainkoak gauzei egunez egun eusten die.
- Jainkoa bere kreazioari lotuta dago.
- Jainkoak egun osoa ematen du bere kreazioa leku santu, tenplu bezala behatzeari.

Laugarren unea. Bilketa eta laburpena



6. urratsa. Jainkoaren maitasuna bizi-bizia da, ugaldu egiten da ematean eta hartu-emanen bidez bizi garela gogorarazten digu. Maitasun horren adierazpen nagusia, Jesus da. Jainkoa guregan bizi da eta lankide egiten gaitu kreazioa zaintzeko eta eusteko.

Une honetan, zeinua egingo dugu, ondorengoia islatzeko: esker ona biziagatik, Jainkoarekiko lotura garen horretatik eta gure baiezkoa kreazioa zaintzeko.

Pazko-zuzia edo kandela ipiniko dugu gelaren erdian. Jesus gure argia dela gogoratzen digu kandelak. Berak gidatzen gaitu eta Jainkoa gure Aita dela gogoratzen digu.

Jardunbidea azalduko dugu:

- Lazoak gure familia sinbolizatzen du. Lagun bakoitzak kandelara lotuko du bere lazoa eta pegatina zabal batez lurrera itsatsiko du. Pegatinan, gaur Jainkoari azaldu nahi diotena idatziko dute: esker ona, hobetzeko asmoa, sentipena...

(Ondo uler dezatela guztiek jardunbidea).



7. urratsa. Musika gozoa jarrita dagoela, kandela piztuko dugu eta pegatinan Jainkoari esan nahi diotena idatz dezatela. Idatzi ahala, lekutik atera, gure lazoa lotu eta lurrera itsatsi.

Amaitzeko, Pablo Martinezen "Hasta la locura" abestia entzungo dugu.



**Entzuteko,
klik egin irudian**

I. Eranskinak



I. Eranskinak



I. Eranskinak



"ETA EGIN ZUEN GUZTIA OSO ONA ZELA IKUSI ZUEN JAINKOAK" HAS 1, 31"